

ezagutzen al duzu Donostia?

Zuatzu

Zuatzu baserria Lugaritz Behea partidu edo auzo zaharreko baserria da. 1862. urtean Donostia hiriko Udaleko Lorenzo Alzate idazkariak egin zuen erregistroan aipatu partiduko 80 zenbakiarekin agertzen da *Zuazo* etxea eta jabegoa. Oso historia luzeko etxea da *Zuatzu*; XVI. mendearen erdialdera eraiki zen eta idatzitako bere lehenengo aipamenak 1625. urtekoak dira, Lope Martinez de Isastik aipatzen baitu bere Gipuzkoako Historian. Etxe honek bere barruan zutik dituen lau mendeetako aztarnak gordetzen ditu. Bere zura apartak gotiko garaiko tolare baten egitura mantentzen du gaur egun, honek etxea benetako altxorra bihurtuz. Dena dela, pasa izan zituen estuasun galantak, adibidez 1876. urteko neguan. Liberalek «beltzek» gure aitona-amonon hitzetan-



Lugaritz auzoko Zuatzu baserria, baratz, belaze eta haritz ederrez inguratua.

erasotu zituzten *Zuatzu* inguruan zeuden karlistak eta hauek ihes egin zuten, baina beltzak etxe barruan sartu egin ziren; etxeko jabeak, bere estuasunean ikuiluko zulo batean gordetzea erabaki zuen eta bertan baionetaz zauritu zuten. Hala ere bizi-rik atera zen eta etxea mira-

riz ez zuten erre.

Rikardo Izagirrek aipatzen du *Zuatzu Urumeako Zillegietako Ursokon** esku-bideak dituen etxea bezala. Izagirreraren aipamen hauek pertsonalki ziurtatu zizkidaten niri, etxe honetako nagusiek. Beraiek kontatzen dutenez etxeko aitona gur-

diarekin *Ursokora* joaten zen garoa moztu eta bildu ondoren etxera garraiatzeko.

**Ursoko:* Urumea haraneko mendi eta garodiak dira, Urdaburu mendiko ipar-mendebaldean daude, Latze errekaaren ondoan.

ARGAZKIA ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE



MARKET SOFTWARE®

D O N O S T I A

IREKI BERRIA!!

- PENTIUM 120 MH 8MB-1GB 109.900
- MICROSOFT teklatu ergonomikoa 12.500
- HP DESKJET 600 29.380

Hontaz gain, amets dezakezun software eskaintzarik onena. Zure zain gaude.

BEZIK gabeko salneurriak.

Aldamar 30 • Tfnoa.: 42 41 84 • Faxa: 42 48 93

JESUS M^a ARIZALA

MEDIKU DENTISTA
ESTOMATOLOGOA

(TOULOUSEKO UNIBERTSITATEA)

ASEGURUAK:
ASISA, PREVIASA,
LAGUN ARO, DIPUTAZIOA,
CAPISA, IPPRESA, MEDIFIAT,
HAURREN HOTZ-PROGRAMA

Ferrerias plaza, 5 behagaina
(Amara Berri ikastetxearen parean)

Tfnoa.: 45 90 45